

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Etxarri-Aranazko Udalak independentziaren inguruan herri-kontsulta egiteko hartutako erabakiaren aurka egingo du Nafarroako Gobernuak

Foru Gobernuak erabaki hori hartu du udalbatzaren isiltasunaren aurrean, bide administratibotik ere jada eskaera egin zitzailona

Lunes, 24 de junio de 2013

Nafarroako Gobernuak administrazioarekiko auzien eskumenaren aurrean Etxarri-Aranazko udalbatzak iragan maiatzaren 10ean hartutako erabakiaren aurka egingo du, hau da, independentziaren inguruan toki-eremuko herri-kontsulta bat egitearen aurka. Kontsulta hori herritar-talde batek sustatu du ondorengo galderarekin: "Etxarri-Aranatz Euskal Herriko udalerrri modura Europako estatu independente berri baten barnean sartzearekin ados al zaude?".

Gogoratu behar da Nafarroako Gobernuak Etxarri-Aranazko Udalerri eskaera egin ziola, jakinarazpena egin eta hamar eguneko epean, Udalbatzaren maiatzaren 10eko erabaki hori (maiatzaren 23ko 165/2013 Foru Agindua, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako kontseilariarena) baliogabe zezan. Epea igarota, eta Nafarroako Gobernuak egindako eskaeren aurrean Etxarri-Aranazko Udalak erantzunik ez ematean, Gobernuak jarduketara hori Administrazioarekiko auzien eskumenaren eskutan jartzea erabaki du, uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoaren, 342. artikuluan 2. atalak ezarritakoa betez.

Estatuarena soilik den eskumena

Gobernuak erabaki hori hartu du, herri-kontsulta hori inolako toki-eskumenarekin bat ez etortzeaz gain, Estatuarena soilik den eskumen bat urratuko zuelako, hau da, nazioarteko harremanen eskumena, eta Konstituzioaren 149.3 artikuluan jasota dagoena.

Halaber, Nafarroako Gobernuak iritzi du deialdiak ordenamendu juridikoaren aurkako elementuak dituela, Etxarri-Aranatz Euskal Herriaren barnean dagoela adieraztea, esaterako, edo "Europako estatu independente berri" baten barnean sartzeko aipamena, ez duena identifikatzen eta, izatekotan, Magna Cartaren 2. artikuluan jasotako Espainiako Nazioaren unitate-printzipioaren aurka doana.

Gobernuak gogora ekarri du Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioari dagokiola Nafarroako toki-erakundeek jarduketan legezketasun-kontrola gauzatzea Toki Administrazioaren 6/1990 Foru Legearen (uztailaren 2koa) ezarritako baldintzetan; horrenbestez, egintza edo erabaki batek Foru Komunitatearen eskumeneko gaietan ordenamendu

juridikoa urratzen duela irizten duenean toki-erakundeari eskaera egin ahalko dio baliogabe dezan edo zuzenean aurka egiteko administrazioarekiko auzien eskumenaren aurrean.